

GURE ERAKUNDEA GUNE SEGURUA BIHURTU

Asoziazionismoan
sexu-jazarpenari aurrea hartzeko
eta aurka egiteko gida



Erakunde autonomotzatuta

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EL SEDEPARTAMENTO DE JUSTICIA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
JUSTICIA PROSECUCION

GURE ERAKUNDEA GUNE SEGURUA BIHURTU.

Asoziazionismoan sexu-jazarpenari aurrea hartzeko eta aurka egiteko gida

Egilea: **Elacuría Fundazioa**

Arrupe Etxea - Aita Lojendio 2, 1 eskuina 48008 Bilbo

Tel.: 944465992

info@fundacionellacuria.org | www.fundacionellacuria.org

Diseinua eta maketazioa: **Erreka Multimedia S.Coop**

1. edizioa: 2021eko abendua

2. edizioa: 2022ko abendua




Gida honek Creative Commons

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia du

Laguntzailea:



AURKEZPENA	5
Gure kideentzako askatasun-eremua izatea	7
Ingurune eta harreman seguruak indartzea	8
1. ZATIA. ORIENTABIDE OROKORRAK	12
1. Zer da sexu-jazarpena?	12
- Kontuan izan beharreko alderdiak	13
2. Erabakitzeko askatasuna: adostasuna	15
- Adostasunerako irizpideak	15
- Hitzak ez dira dena: "Bakarrik bai da baietz" horretatik harago	17
3. Ez begiratu beste aldera: "Bystander intervention"	19
- Nola joka dezakegu?	20
4. Babesten dutenak babestu: Genero-indarkeria Isolatzailea	22
2. ZATIA. NOLA LANDU PROTOKOLO BAT	26
Sexu-jazarpenaren aurka jarduteko protokolo bateko oinarritzko puntuak	28
1. Izenburua, data eta sarrera	28
2. Helburuak	29
3. Definizioak	29
4. Printzipioak eta irizpideak	30
5. Nori erasaten dio Protokoloak: ezartzeko eremua	31
6. Elkartearen eta elkartekideen erantzukizunak eta betebeharrak	32
7. Nola esku hartzen eta ebatzen da	32
8. Babesteko, laguntzeko eta konpontzeko neurriak	34
9. Erantzuteko denbora	35
10. Protokoloaren berrazterketa	35
11. Prebentzio-ekintzak	36
3. ZATIA. PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK	37
4. ZATIA. GLOSARIOA	51
BIBLIOGRAFIA	54



AURKEZPENA

GURE KIDEENTZAKO ASKATASUN-EREMUA IZATEA

Elkarreak harremanetarako guneak dira eta helburu komun bat dugun pertsonak elkartzen gara. Baina elkarrekin lan egiteko, topo egiteko, ikasteko, gure ametsak egia bihurtzeko eta gure errealitatea egiaz eraldatzeko, gure erakundera gerturatzen den pertsona bakoitzak segurtasunez eta askatasunez gerturatu behar du. Elkarreetan sexu-jazarpena ez da beste gune batzuetan baino ohikoagoa, baina eremu askotan gertatzen dela dakigunez (enpresan, unibertsitatean, kiroletan...), inozoa litzateke guri inoiz ez zaigula gertatuko pentsatzea. Hitz egin beharra daukagu eta neurriak hartu behar ditugu...

- Elkarrean mundu guztia seguru senti dadin.
- Horrelakoak egin ditzakeen jendea geldiarazteko. Eta jakin dezaten horrelakoren bat gertatzen bada, ondorioak izango dituztela. Hau da, jazarleek gure elkarreetan inolako zigorgabetasunik ez dutela izango.
- Jazarpena jasan dezakeenak, epaitua izango den beldurrik izan gabe salatu dezan.

Jazarpena gaurkotasun handiko gaia da, ikusgarritasuna du gaur egun, telebistan, irratian, sare sozialetan... toki guztietan dago. Baina behar bezala tratatu beharreko gaia ere bada, ezin da edonola tratatu, oso garrantzitsua baita zuzen aurre egitea eta biktimarentzat are ondorio larriagoak ez izatea. Hori dela eta, "Voces Unidas-Elkartutako Ahotsak" elkarrean saretik zorrotz prestatu nahi izan gara eta gai honi buruz nazioarteko punta-puntako ikerketek zer esaten duten jakin nahi izan dugu,



gure elkarrean gauzak hobeto nola egin guztion artean partekatzeko. Aurkezten dugun gida lan horren emaitza da, gure kide guztiei gaiaren erabilgarritasunaren berri emateko tresna bat izan dezagun, horrek ekar diezagukeenaren berri eman diezaiegun eta babestuta eta informatuta sentitzeko aukera izan dezaten.

Jazarpenaren aurka irmo jardutea eta prebenitzea, eta ez isiltzea edo ezkutatzea ezinbesteko bideak dira gure elkarteak indartsuagoak, demokratikoagoak eta gure helburuekin koherenteak izan daitezten.

“Voces Unidas-Elkartutako Ahotsak” elkarten sarea

- *Asociación de Cameruneses en Bizkaia (ACABIZ)*
- *Asociación de cooperación al desarrollo de mujeres Kongovascas FAMEK ELKARTEA*
- *Euskal Herriko Nepaliar Komunitatearen Elkarte EUSKONEPAL*
- *Asociación de ruso-parlantes de Euskadi RODINA*
- *Asociación de Malienses de Bizkaia (BENKADI)*
- *Asociación de Mujeres Saharais en el País Vasco – La Liga*
- *Asociación Diáspora Saharaui en Bizkaia (DISABI)*
- *Asociación Guine Vizcaya*
- *Asociación Haldi Fotty – Debatimos y acordamos*
- *Asociación Oodua Progressive Union – Yoruba y amigos de Yoruba en el País Vasco*
- *Asociación Solidaridad y Desarrollo NDE de Bizkaia (A.SO.NDE.BIZ)*



INGURUNE ETA HARREMAN SEGURUAK INDARTZEA

Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 20. artikulua honako hau dio: *“Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea”*. Hala dio Euskadiko Elkarteei buruzko Legeak ere (2007) eta honako behar hau azpimarratzen du: *“ekintza positiboak sustatuko dituzte, hartara emakumeei eta gizonei elkarteen alor eta gune orotan modu parekidean izatea eta parte hartzea eragotzen dieten oztopoak kentzeko”*.

Gaur egun ohartzen gara elkarteak egiaz herritarren partaidetza demokratikoko guneak izateko, inguru seguruak eta jazarpenikgabeak ere izan behar direla.

Ignacio Ellacuría Fundazio Sozialak sortu zenetik laguntzen die migratzaileen elkarteen partaidetza-prozesuei, gizarte-eraldaketarako eragile aktibo indartsuak izan daitezen, garatu daitezen eta zeregin hori azalera dezaten. Aurkezten dugun Gida hau elkarteak indartzeko ahaleginetik sortu da, gizarte-erakundeetan sexu-jazarpena prebenitu ahal izateko tresna erabilgarri eta praktikoa izateko asmoz.



Gida hau modu parte-hartzailean egin da. 2021ean, Ellacuría Fundazioak, “Voces Unidas-Elkartutako Ahotsak” elkartearen Sarearen bidez, kalitate oso handiko sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesu bat koordinatu du Ana Vidu Afloarei doktorearekin (California-Berkeleyko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikertzailea, genero-indarkeriaren eta jazarpenaren prebentzioan eta “Me too Universidad” sarearen sortzaileetako bat). Alor honetako nazioarteko ekarpen zientifiko garrantzitsuenak ezagutu asmoz, 20 elkarte baino gehiagotako 80 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte prestakuntzan. Ondoren, etorkinen elkarteetako partaideak sartu ziren Gida hau egiteko lan-batzorde arduradunetan. Aldi berean, hainbat erakunde hasiak dira beren protokoloak idazten eta ezartzen.

Neurri horiek izatea eta behar bezala aplikatzea oso lagungarria izango da elkarteak hainbat dimentsiotan hobetzeko, ez soilik jazarpena gainditzeko bidean, baizik eta, elkarte horiek gune parte-hartzaileagoak, berdintasunezkoagoak, libreagoak eta gizartean eragin handiagoa dutenak izateko ere bai.

José Javier Pardo Izal, Ellacuría Fundazioaren zuzendaria





1. ZATIA ORIENTABIDE OROKORRAK

1. ZATIA ORIENTABIDE OROKORRAK

1. Zer da sexu-jazarpena?

Jazarpenaz hitz egitea oso garrantzitsua da elkarteentzat eta han harremanak errazago alda ditzakegu, adiskideen artean bageunde bezala hitz egiten baitugu, ezagunen artean.
Malika¹

Azken urteotan, gizartean aurrerapen handia egin da indarkeriari eta sexu-jazarpenari buruzko kontzientziazioan, gaiari buruzko ikerketari esker, bai eta biktimek (lagundu dieten pertsona eta kolektibo askorekin batera) egindako mobilizazioei eta salaketei esker ere. “Me too” edo “Nik sinesten dizut” bezalako mugimenduak garrantzitsuak izan dira isilik ez egoteko, biktimei elkartasuna adierazteko eta berdintasunaren aldeko borrokan beste urrats bat egiteko.

Diskriminazio-egoera adina jazarpen mota daude: arrazagatik, pertsona baten sexuagatik, genero-identitateagatik, sexu-orientazioagatik, erlijioagatik, adinagatik, jatorri nazional edo etnikoagatik, sinesmen politikoengatik, desgaitasun batengatik, etab. Gure elkarteetako kide guztiek dute diskriminaziorik eta jazarpenik gabeko ingurune batean parte hartzeko eskubidea. Hemen aurkezten dugun dokumentuan sexu-jazarpena aztertzen dugu, hau da, tipo sexualeko jazarpena.

Sexu-jazarpena, genero-indarkeria mota bat da² eta oraindik ohikoegia da gure gizartean: **Europar Batasunean bi emakumetik bat (% 55) sexu-jazarpenaren biktimia izan da** gutxienez behin 15 urte zituenetik³. Ikerketa askok⁴ adierazten dute pertzepzio desberdinak daudela sexu-jazarpena denari eta ez denari buruz; horregatik, arazoa onartzeaz gain, oso beharrezkoa da identifikatzen jakitea. Europako zuzentarauek honela definitzen dute:

1 Malika elkarte bateko kidea da. Gida honetan aipatzen diren denak elkarteetako kideak dira eta egiazko izenaren ordez, izenorde bat erabili da.

2 European Comission: *What is gender-based violence?* https://ec.europa.eu/info/policies/justice-and-fundamental-rights/gender-equality/gender-based-violence/what-gender-based-violence_en

3 FRA - Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014): *Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren inkesta, emakumeen aurkako indarkeriari buruz* https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-at-a-glance-oct14_es.pdf

4 Latcheva, R. (2017). Sexual Harassment in the European Union: A Pervasive but Still Hidden Form of Gender-Based Violence. *Journal of Interpersonal Violence*, 32(12), 1821-1852.



ZER DA SEXU-JAZARPENEA?

"Nahi ez den portaera mota oro, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, izaera sexuala duena eta pertsona baten duintasuna urratzea xede edo ondorio duena, bereziki jokabide horrek giro larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzen duenean"⁵

KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDERDIAK:

Komeni da gogoratzea sexu-jazarpena edozein testuingurutan gerta daitekeela, hala nola elkarteko kideen artean, sexu bereko pertsonen artean, antolatzen dugun ekitaldi batera joaten diren pertsonen artean edo bazkideen eta boluntarioen artean. Oso sotila izan daiteke eta ez dugu inoiz erlatibizatu behar, inoiz ez gara justifikatzen saiatu behar edo inoiz ez dugu garrantzia eman gabe utzi behar:

- Bai gizonak bai emakumeak izan daitezke biktima edo erasotzaille; hala ere, gogoan izan behar dugu biktima gehienak emakumeak direla, eta erasotzaille gehienak, aldiz, gizonak⁶.
- Jazarleak mota guztietako maila sozialetan, hezkuntza-mailetan, lanpostuetan, erakundeetako erantzukizunetan eta talde etniko, erlijioso edo politiko guztietan daude.
- Ez dute aitzakiek balio: "Adarra jotzen ari ginen", "Beste garai batekoa da", "sentiberatasun handiegia duzu", "behin besterik ez da izan", "txorakeriatan ibili besterik ez nuen nahi"... jazarpena justifikatzeko behin eta berriro erabiltzen diren esaldiak dira. Sexu-jazarpena botere-abusua da, sexu-jokabidea etsaigarako eta erasorako erabiltzen duena.
- Jazarlea beti da jazarpena egin izanaren erantzulea. Biktimaren itxurak edo jantzeko moduak, portaerak edo ekintzek ez dute inoiz jazarpena justifikatuko. Biktimak inoiz ez du errurik eta hori da, hain zuzen ere, jazarpenaren aurkako nazioarteko mugimenduaren eta literatura zientifikoaren oinarritzko printzipioa.

⁵ Europako Kontseilua (2011): *Europako Kontseiluaren 2011ko Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontra* (40. artikulua).

⁶ European Institute for Gender Equality: *Gender Statistics Database*. https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/ta_wrklab_wrk_cond_wrkcultdiscr__ewcs_harassment/bar

MODU BAT BAINO GEHIAGOKO SEXU-JAZARPENAK⁷:



- Nahi gabe emandako musuak, besarkadak edo egindako ukituak.
- Iraintzen zaituzten aipamen edo broma sexualki limurtzaileak.
- Topaketa baterako gonbidapen desegokiak.
- Zure bizitza pribatuari buruzko galdera laidogarriak.
- Zure itxura fisikoari buruzko aipamen mingarri laidogarriak.
- Kikiltzen zaituzten begirada desegokiak edo lizunak.
- Norbaitek bidaltzen edo erakusten dizkizun irudi, argazki edo opariak, eduki sexualki esplizitua dutenak, eta iraintzen zaituztenak.
- Jokabide exhibizionista lotsagabeak.
- Norbaitek zure borondatearen kontra ikustera behartzen zaituen material pornografikoa.
- Iraintzen zaituzten mezu elektronikoak edo SMS sexualki esplizituak.
- Iraintzen zaituzten iradokizun desegokiak, sare sozialetan edo Interneteko foroetan.

GOGOAN IZAN!

Jokabide bat sexu-jazarpenera den jakiteko gertakari zehatzak eta testuingurua izan behar dira kontuan, baita jazarpenera jasan duen pertsonarentzako ondorioak eta borondaterik eza ere. Nolanahi ere, jazarpenera den ala ez jakiteko **funtsezko faktoreetako** batzuk honako hauek dira:

- Erasandako pertsonak **egintza egin nahi ez izatea**
- eta **errepresalien beldurrik gabe urruntzeko aukera** izatea.

⁷ FRA - Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014): *Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren inkesta, emakumeen aurkako indarkeriari buruz*. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-at-a-glance-oct14_es.pdf

2. Erabakitzeko askatasuna: adostasuna

Argi dago, denak ados egon behar dira edozer gauzatarako, bestela jazarpena da. Horregatik hitz egin behar dugu honi buruz.
Karim

“Nahi ez den jokabidea” esaten dugunean sexu-jazarpenari aurrea hartzeko ezinbesteko kontzeptu bati lotuta dago: adostasunari. Hau da, **edozein proposamen askatasun osoz onartzeari edo ez onartzeari**. Egoera sexual batean, eroso sentitu behar gara egiten ari garenekin edo esaten digutenarekin eta, aldi berean, edozein unetan geratzeko aukera dugula sentitu behar dugu.

ZER DA ADOSTASUNA?

Adostasuna baimena ematea da, harreman afektibo-sexuala izateko aktiboki ados egotea inolako presiorik gabe. Eta zerikusia duten aldeek ahoz edo bestelako keinu argiekin ematen dute baimen hori; inolako zalantzarik ez da egoten.⁸

ADOSTASUNERAKO IRIZPIDEAK

Inoiz ez da pentsatu behar bestea ados egongo dela, ez aurrez izan duen jokabide baten ondorioz, ez janzkeraren ondorioz edo doan tokiaren ondorioz. Hainbat herrialdetako erakunde zibilen kanpainen⁹ ezaugarri hauek adierazi dituzte adostasuna egoteko:

- **Akordio librea da:** harremanean parte hartzen dugun pertsona guztiok ados egon behar dugu harreman hori izatearekin, aldi guztietan. Askatasunez erabaki behar dugu; hau da, adostasuna ez da lortzen indarraren, presioaren, manipulazioaren, mehatxuen edo larderiaren bidez, ezta drogen edo alkoholaren eraginpean egonda ere, eta lo gaudenean ere ez.
- **Gogotsua da:** Parte hartu nahi dugu ilusionatzen eta kitzikatzen gaituelako eta gogotsu gaudelako, eta ez hori egiteko presioa sentitzen dugulako. Nahi ditugun gauzak eta nahi ditugun bezala egitea da, ez guk egitea espero den gauzak egitea.

⁸ National Sexual Violence Resource Center. *I Ask for Consent. Sexual Assault Awareness Month.* <https://www.nsvrc.org/saam/2019>

⁹ Planned Parenthood Federation of America. *Adostasun sexuala.* <https://www.plannedparenthood.org/learn/relationships/sexual-consent>

- **Zehatza da:** zerbait egin nahi izateak, adibidez festa batean musu emateak, ez du esan nahi beste ezer egin nahi dugunik, adibidez, sexu-harremanak izan. Hau da, ekintza afektibo-sexual jakin baterako une jakin batean egondako adostasunak ez du beste era bateko jarduera afektibo-sexualerako baimena ematen, ezta beste batzuetarako ere.
- **Informatua da:** adostasuna emateko, pasako denari edo egin nahi denari buruzko informazio osoa izan behar dugu. Zer eta noiz onartzen dugun jakitea da.
- **Aldatu daiteke:** egin nahi dugunaz iritziz aldatzeko eskubidea dugu eta beste pertsonak onartu egin behar du. Inoiz ez da iritziz aldatzeko beranduegi. Adostasunik ez dagoela esanez gero, jarduera afektibo-sexualari berehala utzi behar zaio.

*Isilik egoteak ez du baietz esan nahi. Askok hala uste dute, isilik egoteak baietz esan nahi duela. Epaiketan behin galdetu zidaten nik ezetz esan al nuen eta nik erantzun nien "ez" ez nuela esan, baina negarrez hasi nintzela eta horrek ezetz esan nahi zuela. "Ez" esateko modu bat baino gehiago daude.
Surya*

“EZ EZETZ DA”TIK “BAKARRIK BAI DA BAIETZ”ERA

Diskurtso jazarlearen arabera, emakume batek proposamen bati uko egi- ten dionean, egiaz esan nahi duena ‘bai’¹⁰ da; bada, diskurtso horri aurre egiteko, mugimendu feministak eta bortxaketaren aurkakoak hasiera batean **“ez ezetz da”** leloa sortu zuen eta, argi utzi “ez” esaten denean esanahi literala duela, beste interpretaziorik gabe. Oso errotuta zegoen diskurtso jazarleari aurre egiteko urrats bat izan arren, ez zela nahikoa ikusi zen, pertsona batzuek ezin zutela aurre egin edo ‘ez’ esan egoera jakin batzuetan, adibidez, konorterik gabe edo intoxikatuta daudenean. Gaine- ra, erantzukizuna biktimarena zen eta ez erasotzailearena.

Muga horiek gainditzeko, Estatu Batuetako unibertsitate-campusetako ikasle-mugimenduek eta New York (2014) eta Kaliforniako (2015) legediek **“Bakarrik bai da baietz”** kontzeptua sortu zuten, ‘baiezko adostasuna’ delakoa. Beraz, adostasunak “bai” bat behar du, gure borondatea positi- boan adierazi behar dugu, eta “bai” ez den guztiak ez du inolako baimenik ematen.

¹⁰ Cook, N. K., & Messman-Moore, T. L. (2018). I Said No: The Impact of Voicing Non-Consent on Women’s Perceptions of and Responses to Rape. *Violence Against Women, 24*(5), 507–527.

HITZAK EZ DIRA DENA: “BAKARRIK BAI DA BAIETZ” HORRETATIK HARAGO

Ikusi dugunez, funtsezkoa izan da “bai” batean oinarrituta ezartzea adostasuna, baina, hala ere, mugak ditu. Adibidez, jazartzen zaituen pertsonak titulu bat lortzeko edo zure egoera erregularizatzeko ikastaro baten ziurtagiria sinatzeko ardura badu, edo lana aurkitzeko zubi lanak egin dituen elkarteko pertsona bada, egoera deseroso bat onartzea edo “bai” esatea baldintzatuta egon daitezke. Botere-harremanak, beldurra edo larderia oso garrantzitsuak dira egoera baten testuingurua ulertzeko.

Ondorioz, zer gertatzen da presiopean dagoen pertsona batek ‘baietz’ esaten bada, baina bere nahia ‘ez’ bada? Azkenaldiko ikerketek^{11, 12, 13, 14} adostasunaren ikuspegi berri bat aipatzen dute, eta ikuspegi hori ez da mugatzen nahi dugula esatera, baizik eta hitzetatik harago doa. Izan ere, keinuek, aurpegiko adierazpenak, jarrerak, begiradak, ahots-tonuak, hau da, hitzik gabeko komunikazioak dena esaten du eta askotan ez dugu hitzik behar. Horregatik, komunikazio horren (hitzezkoa eta ez-hitzezkoa) testuingurua irakurri nahi izatea da gakoa, eta jarrerak, borondateak, balizko hertsapenak eta bestearengan eragina izan dezakeen guztia interpretatzen jakitea.

Zentzu horretan, egiazko adostasuna izateko, askatasun osoz esandako “bai” izateko, honako hauek egin behar ditugu:

Ondorioetan fijatu, ez asmoetan

Demagun, gure erakundean sexu-jazarpen salaketa bat egon dela eta erasotzailerak “broma bat egin nahi nion, besterik ez” esaten digula. Baloratu behar duguna ez da erasotzailearen hasierako asmoa, baizik eta biktimarentzako azken ondorioa: «*“Asmo onek” ez dituzte justifikatzen “ondorio txarrak”. Adostasuna amaierara arte ziurtatu behar da, hau da, **ondorioa funtsezkoa da adostasuna egon zeneala ez zehazteko**».¹⁴*

Komunikatzen dugun guztia izan kontuan

Adostasuna hitzekin eman beharrik ez dago, eta lortzeko ezta beste pertsonari etengabe galdetu beharrik ere, izan ere, **desioa modu askotara adieraz daiteke**¹⁵.

11 Flecha, R., Tomás, G., & Vidu, A. (2020). Contributions from psychology to effective use and achievement of sexual consents. *Frontiers in Psychology*, 11 (92).

12 Willis, M., Jozkowski K. (2018). Sexual Precedent's Effect on Sexual Consent Communication. *Archives of Sexual Behavior*, 48:1723-1734

13 Vidu, A., & Tomás Martínez, G. (2019). The Affirmative “Yes”. Sexual Offense Based on Consent. *Masculinities and Social Change*, 8(1), 91-112

14 Flecha, R., Tomás, G., & Vidu, A. (2020). Contributions from psychology to effective use and achievement of sexual consents. *Frontiers in Psychology*, 11 (92).

15 El Diario Feminista (2018). *Consentimiento sexual y actos comunicativos*. Barcelona: Ainhoa Flecha. <https://eldiariodefeminista.info/2018/02/11/consentimiento-sexual-y-actos-comunicativos/>

Adostasuna baloratzeko funtsezko ezaugarria da komunikatzen dugun guztia gogoan izatea: esaten duguna eta ez duguna, gure keinuak, non esaten dugun, nor dugun inguruan, gure kokapena, nola begiratu diguten, zertaz hitz egin dugun aurretik... Horiek guztiak 'komunikazio-ekintzak' dira eta egiten dugunean eta egiteko zergatian eragina dute.

Erakunde batean, esaterako, kontuan izan behar dugu hierarkia bat duten pertsona guztiek edo zerbaiten edo norbaiten arduradun direnek zeregin garrantzitsua dutela besteekin eta zailagoa izan daitekeela erabaki bat askatasunez hartzea (horren mende dagoelako nota bat, ziurtagiri bat, laguntza bat, lan bat...). Beraz, "boterea" duten testuinguru horietan kontu handiz ibili behar dira pertsona horiek eta pertsona horien erantzukizuna da adostasun librea eta koakziorik gabea ziurtatzea. Beste egoera batzuetan, demagun afari batean edo lagunekin dugun festa batean, presiona gaitzakete nahi ez dugun zerbait egin dezagun eta baliteke azkenean nahi ez dugun hori egitea, ongi pasatzen ez dakigula esan ez dezaten, egiten ez badugu behar adina gizon/emakume ez garela pentsa ez dezaten, etab. Egoera horiek bereizten jakitea oso garrantzitsua da, sentitzeko eta askatasunez erabakitzeko.

Horregatik guztiagatik, argi dago baiezko adostasuna "Bakarrak bai da baietz" leloaz harago joan behar dela, "bai" guztiak inolako presiorik gabe esandakoak izan daitezen eta askatasunez esandakoa izan dadin, argi, berariaz eta botere-harremanik gabe esandakoa izan dadin"¹⁶.

¹⁶ El Diario Feminista (2019). *El caso de "La Manada" exige nuevas aportaciones científicas*. Barcelona: Lidia Puigvert. <https://eldiariofeminista.info/2019/06/21/el-caso-de-la-manada-exige-nuevas-aportaciones-cientificas/>

3. Ez begiratu beste aldera: “*Bystander intervention*”

*Ez da erasotzailearen eta biktimaren arteko kontua. Denona da.
Elkarrekin jardun behar dugu emakumeak babesteko.
Khadija*

Bystander hitza ingelesez ekitaldi edo gorabehera batean dauden pertsonak deskribatzeko erabiltzen da, ekintzaren baten lekuko presentzialak deskribatzeko. Jazarpen baten lekuko izan eta ezer ere ez egiteak, jazarpenari laguntzen ari garela esan nahi du, eta ondorioz, konplizeak garela. Aldiz, esku-hartzen badugu, eraso baten lekuko izan eta zerbait egiten badugu, biktimaren bizitza aldatu egin daiteke (horrelakoei *upstander* esaten zaie). Hori dela eta, azken hamarkadetan hainbat programa (*bystander intervention*) garatu dira lekukoen esku-hartzea sustatzeko.

Green Dot¹⁷ bezalako programek argi utzi dute eraginkorrak direla genero-indarkeriari eta sexu-jazarpenari aurrea hartzeko, jazarpenak identifikatzeko zenbait trebezia eta estrategia ikasi ondoren alde guztientzako arriskurik gabe parte hartzeko aukera baitago. Jarraian ikusiko dugunez, esku-hartzea esatean zuzeneko parte hartzea izan daiteke (gehiegi edan duen norbait txoko urrunen batera eramatea saihestea, adibidez), beste pertsoneri laguntza eskatzea izan daiteke (adibidez, kideei aipatu zer gertatzen ari den, agintariei deitu...) edo egoera distraitzea izan daiteke (adibidez, txiste bat kontatu, eskuko telefona eskatu...).

ZER DA BYSTANDER INTERVENTION?

“Beste pertsonarentzako kaltegarria izan daitekeela uste dugun egoerari ematen zaion erantzun mota bat da. Kaltegarria izan daitekeela ohartu behar gara eta neurriak hartzean kalte hori murrizteko zenbat egin dezakegun ulertu behar dugu.”¹⁸

¹⁷ Cook-Craig, P. G., Millsaugh, P., Recktenwald, E., Kelly, N., Hegge, L., Coker, A., & Pletcher, T. (2014). From Empower to Green Dot: Successful strategies and lessons learned in developing comprehensive sexual violence primary prevention programming. *Violence Against Women*, 20, 1162-1178

¹⁸ Harvard University's Office for Gender Equity (2021). *Helping Harvard Engage in Bystander Intervention. What Can We Do? Steps to Stopping Harassment*.

Sexu-jazarpena egon daitekeen egoerak ikusten ditugunean edo ikusi ez arren hori horrela dela dakigunean, "lekuko aktiboak" izateko oso garrantzitsua da gure esku-hartzea zaildu dezaketen oztopoez ohartzea ¹⁹. Oztopo horiek pertsonalagoak izan daitezke (konfiantzarik ez dagoelako, ez dakigulako zer egin, esku hartzen badugu erasoko gaituzten beldur garelako, etab.), gauden taldearen ondoriozkoak (esango dutenaren beldur garelako, ez dakigulako babestuko gaituzten...) edo oztopo sozialak izan daitezke (besteren batek esku hartuko duela pentsatu, edo inork ezer egiten ez badu horrenbestekoa ez zela uste izan...).

NOLA JOKA DEZAKEGU?

Oztopo asko egon daitezke eta bakoitzarentzako eta egoera bakoitzean desberdinak izan daitezke oztopo horiek, baina hala ere, oso garrantzitsua da jakitea **beti dagoela egin dezakegun zerbait**. *Bystander intervention* programek esku-hartze jakinetarako estrategiak proposatzen dituzte, beti aukeraren bat izan dezagun oztupoak gainditu ondoren erosoago eta seguruago sentitzeko. Funtsezkoa da, ezer baino lehen, argi izatea **hartuko ditugun neurriak seguruak izango direla beti eta ez dutela gure segurtasun pertsonala eta biktimarena arriskuan jarriko**.

Erantzunak honela banatzen dira:

JOKATZEKO MODU ZUZENA:

Gertatzen ari denari zuzenean heltzea da, adibidez, jazartzen ari den pertsonarengana zuzentzea eta uzteko esatea edo egiten ari denaren ondorioz arazo larriak izan ditzakeela adieraztea. Edo bestela, jazarpena jasaten ari den pertsonarekin ere hitz egin genezake eta ondo dagoen galdetu.

DISTRAITU:

Zerbait egin dezakegu tartean dauden pertsona bat edo batzuk distraitzeko, adibidez, haien artean dantza egin norbaitek ihes egin dezan, haietako edozeinekin hitz egiten hasi, edo haietako bati esan beste areto batean behar dugula jolas bat egiteko, edo lagunak bere bila dabiltzala norbait ondo ez dagoelako.

ESKUORDETU:

Beste pertsona batengana joan, beste horrek esku hartu dezan. Ekitaldia antolatu duen elkarteko biltzarkideren batengana, festa egiten ari garen tabernako zerbitzariarengana, biktimaren lagunei abisatu hura ikustera joan daitezen, polizia deitu, etab.

¹⁹ Coker, A. L., Cook-Craig, P. G., Williams, C. M., Fisher, B. S., Clear, E. R., Garcia, L. S., & Hegge, L. M. (2011). Evaluation of Green Dot: An Active Bystander Intervention to Reduce Sexual Violence on College Campuses. *Violence Against Women*, 17(6), 777-796.

Estrategia horien artean, garrantzitsua da baloratzea egoera bakoitzean **zein aukera eta modu den egokiena, betiere biktimarengan eta gure ekintzak sor ditzakeen ondorioetan pentsatuta, batez ere haren segurtasuna eta ongizatea arriskuan ez jartzeko**. Erasotzaileari zuzendutako esku-hartzeek biktimentzat ondorio negatiboak dituztela egiaztatu da, baina biktimekin esku hartzeak (adibidez, biktimarengana hurbilduz, erasotzailearekiko interakzioa etenez edo biktima erasotzailearengandik baztertuz) ondorio positibo gehiago eta segurtasun-sentsazio handiagoa ematen du²⁰.

Laburbilduz, esku hartzeko aukera asko daude, eta garrantzitsua da gure elkarreetako kideek jakitea erakunde bakoitzean pertsona batzuk prest daudela ahal den guztian laguntzeko.

20 Moschella, E. A., & Banyard, V. L. (2020). Reactions to Actions: Exploring How Types of Bystander Action Are Linked to Positive and Negative Consequences. *The Journal of Primary Prevention*, 41(6), 585-602.

4. Babesten dutenak babestu: Genero-indarkeria Isolatzailea

Batzuetan izaten dira beste pertsona bati lagundu nahi diotenak eta horrek arazoak ekartzen dizkie. Hori dela eta, emakume edo gizon askok ezin dituzte beste pertsonak defendatu, ez baitute arazorik nahi.

Diarra

Bystander intervention trebakuntza-programak dira eraginkorrenak jarreraz aldatzeko, esku hartzeko prestutasun handiagoa izateko eta nola jokatu jakiteko sexu-jazarpena eta genero-indarkeria dagoenean. Badakigu ezinbestekoa dela jazarpen edo eraso baten lekukoek esku hartzea eta biktimen ondoan egotea. Baina badakigu, halaber, kasu baten berri dutenen ia erdiek (edo egoera baten lekukoek) ez dutela parte hartzen mendekuen beldur direlako²¹.

Arrazoi nagusienetako bat Genero-indarkeria Isolatzailea²² da; hau da, erasoak, kritikak eta ondorio negatiboak egon daitezke genero-indarkeriaren biktimak laguntzen dituzten pertsonen eta erakundeen aurka. Askotan, sexu-jazarpenaren biktimei laguntzen dietenak indarkeria fisikoaren edo/eta psikologikoaren biktima bihurtzen dira biktimari salaketa jartzera laguntzen badiote edo defendatzen badute; babes edo laguntza horren aurkako mendekua izaten da²³.

ZER DA GENERO-INDARKERIA ISOLATZAILEA?

*Genero-indarkeriaren biktimak defendatzen dituenaren aurka egindako erasoak eta errepresaliak dira, biktimak isolatuta egon daitezzen. Biktimei laguntzen dietenen zein biktimen aurka zuzenean egindako indarkeria da, biktimak isolatzeko eta zigorgabetasuna bermatzeko*²⁴.

21 Melgar, P., Geis, G., Flecha, R., & Soler, M. (2021). Fear to Retaliation: The Most Frequent Reason for Not Helping Victims of Gender Violence. *International and Multidisciplinary Journal of Social Sciences*, 10(2), 31-50.

22 Vidu, A., Puigvert, L., Flecha, R., & López de Aguilera, G. (2021). The concept and the name of Isolating Gender Violence. *Multidisciplinary Journal of Gender Studies*, 10(2), 176-200.

23 Vidu, A., Valls, R., Puigvert, L., Melgar, P., & Joanpere, M. (2017). Second Order of Sexual Harassment - SOSH. *Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 7(1), 1-26

24 Aubert, A., & Flecha, R. (2021). Health and Well-Being Consequences for Gender Violence Survivors from Isolating Gender Violence. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(16), 8626

Genero-indarkeria isolatzailea (hasiera batean “bigarren mailako sexu-jazarpena” esaten zaio), hainbat harreman, ingurune eta testuingurutan gerta daiteke, eta biktimaren ingurunearen erreakzioa zuzenean baldintzatzen du, indarkeria dagoela isilarazteko, biktimari babesik ez emateko eta harekin inor ez posizionatzeko²⁵. Horrela, **genero-indarkeria isolatzaileak mugatu egin dezake jazarpenen baten berri duenaren esku-hartzea, hura ere biktima bihurtzeko beldurrez**. Jazarleek, nahiz eta ez diren beti zuzeneko biktimaren aurkako indarkeria erabiltzen duten berak, genero-indarkeria isolatzailea egiteko batez ere umiliazioak, mehatxuak eta gezurrak erabiltzen dituzte (nahiz eta edozein indarkeria-mota ere erabil dezaketen), biktimen izen ona eta sinesgarritasuna erasotzeko.


Ikerketa zientifikoak aurkitu duenaren ildotik, garrantzitsua da, halaber, erakundeok dugun zeregina biktimei babesia ematen dien ingurune hori babesteko eta genero-indarkeria isolatzailea saihesteko²⁶. Garrantzitsua da indarkeriaren eta jazarpenaren aurkako politikak izatea, baita politika horiek behar bezala aplikatzea ere, egoera hobetzeko; izan ere, horri esker, pertsonak biktimaren alde esku hartzen dute, babestuta sentitzen dira eta ez dute errepresaliarik jasaten jarrera hartzeagatik²⁷.

Horregatik, **elkarrekin kontuan izan behar dugu genero-indarkeria isolatzailea dagoela, eta zero tolerantzia duen politika izan behar dugu, gertatzen denean esku hartzeko eta politika horrek biktimentzat ondorio onuragarriak izateko**; bestela, ez dugu sexu-jazarpena geldiaraztea lortuko. Beraz, ezinbestekoa da genero-indarkeriaren biktimak defendatzeko ingurune egokia sortzea eta babesten dituztenak ere babestea.

25 Flecha, R. (2021). Second-Order Sexual Harassment: Violence Against the Silence Breakers Who Support the Victims. *Violence Against Women*, 27(11), 1980-1999.

26 Puigvert, L., Vidu, A., Melgar, P., & Salceda, M. (2021). BraveNet Upstander Social Network against Second Order of Sexual Harassment. *Sustainability*, 13(8), 4135

27 Valls, R., Puigvert, L., Melgar, P., Garcia-Yeste, C. (2016). Breaking the silence at Spanish Universities: Findings from the first study of violence against women on campuses in Spain. *Violence Against Women*, 22(13), 1519-1539



2. ZATIA: NOLA LANDU PROTOKOLO BAT

2. ZATIA: NOLA LANDU PROTOKOLO BAT

Edozein emakume elkarte horietara joaten denean eta emakumeak babesten dituen gida edo lege bat dagoela jakiten duenean, seguruago eta lasaiago egongo da, beste pertsona batzuek babesten zaituztelako.
Amina.

Elkarateok gure funtzionamendua arautzen eta antolatzen duten erreferentziazko dokumentuak ditugu. Agiri nagusia eta oinarritzakoa Estatutuena da, Estatutuetan baitator erakundearen misioa, jarduerak, bazkideen eskubideak eta betebeharrak, funtzionamendu demokratikoa eta abar. Batzuetan, Estatutuetako puntuetako batzuk gehiago garatu eta zehazteko, beste dokumentu bat egiten da: Barne Araubidearen Erregelamendua.

Jarduera-protokoloak ere erabilgarriak izan daitezke erakundeentzat. Egoera jakin bat gertatzen denean esku hartzeko irizpideak eta jarraitu beharreko urratsak finkatzen ditu protokoloak. Adibidez, erakunde, enpresa edo ekipamendu publiko askok suteen aurkako protokoloa izaten dute. Horrek ez du esan nahi leku hartan sua askotan pizten denik, baizik eta alarmak jotzen duenean zer egin jakiteko balio du, inoiz suteraren bat izanez gero nondik irten eta han dauden pertsonen segurtasuna ongien nola babestu jakiteko balio du.

Kasu honetan, gure elkartean sexu-jazarpenak prebenitzeko eta gertatuz gero nola jokatu jakiteko protokoloa egingo dugu. Dokumentu honetan, zer egin, nola egin, noiz, norengana jo eta abarri buruzko orientabide zehatzak deskribatuko ditugu. Horri esker, arazo bat berari buruz desberdin jardutea ekidingo dugu, ez dugu inprobisatuko eta une horretan inplikaturako pertsonen irizpideen arabera ere ez gara jardungo soilik. Izan ere, hala jokatuz gero, are kalte handiagoa egin geniezaieke biktimei, eta gure elkarteak ez dela leku segurua haientzat esango genieke jokabide horrekin.

Horregatik, gure erakundearen protokolo bat izateko arrazoi nagusia erabakiak hartzeko bidea erraztea da eta egon daitekeen sexu-jazarpen oro konpontzeko modu eraginkor eta azkar bat izatea. Guztiok jarduteko jarraibide berberak ditugula bermatzen da eta biktimekin eta erasotzaileekin neurririk bidezkoenak eta egokienak hartzen direla ere bai.

Era berean, garrantzitsua da gogoraraztea sexu-jazarpena dagoenean bi konponbide egoten direla eta bat aukeratzeak ez duela bestea baztertzen:

- Barne-ebazpena: erakundearen, protokolo honen bidez
- Kanpoko ebazpena: bide penala edo judiziala

Jazarpenaren aurkako protokolo bat elkarte osoaren adostasunetik abiatu behar da, eta eskura dagoen ebidentzia zientifikorik onena jaso behar du, Gida honetan

proposatzen eta eskaintzen dugun bezala. Dokumentua aldizka aztertu behar da, erakundearen errealitatera eta antolamendura egokitzeko. Eta garrantzitsuena, protokoloa izate hutsa ez da nahikoa: behar bezala ezarri eta inplementatu behar da, bestela erabilgarritasun guztia galduko luke.



GURE PROTOKOLOA EGITEKO URRATSAK:

- **1. urratsa. Talde edo batzorde bat egitea**, gure elkarteko ahots guztien ordezkari izango dena, talde anitza izan dadin: elkartekideena, gure jardueretan parte hartzen duten pertsonena, boluntarioena (baldin baditugu) eta profesionalena (jendea kontratatuta bagenu). Protokoloa prestatzeko batzorde honetan, pertsona guztiek hartzen dute parte elkarrizketa berdinezalean, beren jarrera edozein dela ere. Batzordearen eginkizuna da protokolo-proposamen bat prestatzea, Batzarrean onartzeko.
- **2. urratsa. Biltzarrari aurkeztea**, testua berrikusteko eta, egoki iritzi gero, ekarpenak egiteko. Eta horrela, batzordearekin batera, elkartearen Batzarrean aurkeztu beharreko testu proposamena definitzea.
- **3. urratsa. Batzarrean onartzea**, Dokumentu-proposamena erakundeko bazkideen eskura jarriko da, kontsultatu ondoren Batzarrean berretsi dadin.
- **4. urratsa. Pertsona guztiek ezagutu behar dute Protokoloa.** Elkartean parte hartzen duten pertsona guztientzat eskuragarri dagoen dokumentua da. Barne-dokumentu bat denez, ez da beharrezkoa elkartean inongo erregistrotan inskribatzea.
- **5. urratsa. Kontzientzia eta konpromisoa sortzea.** Beharrezkoa da Protokoloaren aurkezpenak aldizka egitea, mundu guztiak izan dezan Protokoloaren berri eta elkartekide berriei ere azaldu behar zaie. Baita, sexu-jazarpena prebenitzearen garrantziari buruzko kontzientzia sortzeko prestakuntzak egitea ere.

SEXU-JAZARPENAREN AURKA JARDUTEKO PROTOKOLO BATEN OINARRIZKO PUNTUAK

Jarraian daude egingo dugun Protokoloak izan beharreko elementuak. Aurkezten diren adibideek gizarte-erakundeen protokoloak hartzen dituzte erreferentziatuz, hala nola La Vernedako (Bartzelona) Pertsona Helduen Eskolako Heura Emakumeen Elkartearena, aitzindaria Estatuan 2000. urtean sexu-jazarpenaren aurkako protokolo bat ezartzen.

Hemen proposatzen diren edukiak elkarte bakoitzaren errealitatera eta antolaketara egokitu behar dira, eta modu parte-hartzailean egin, elkarte horretan parte hartzen duten guztiakin.

1. Izenburua, data eta sarrera.

Protokoloaren izenburua jasoko dugu, baita onarpen-data ere, eta, hala badagokio, berrikuspen- edo eguneratze-data.

Jarraian, jazarpenaren aurkako protokolo bat izateko beharraren zergatiak eta arrazoiak idatziko ditugu, baita elkartearen konpromisoa eta kide guztien inplikazioa ere.

ADIBIDEZ

SEXU-JAZARPENAREN PREBENITZEKO, HAUTEMATEKO ETA AURKA EGITEKO PROTOKOLOA.

Protokoloaren data

Zoritxarrez, sexu-jazarpena oso hedatuta dago gizarteko esparru guztietan, ondorioz, badakigu gure elkartearen ere kasuak gerta daitezkeela, eta ezin gara egon ezer gertatuko ez balitz bezala. _____

Elkartearen (elkartearen izena) eta kide guztien erantzukizuna da pertsonen segurtasuna eta osotasuna bermatzea, eta sexu-jazarpena prebenitzeko, detektatzeko eta horren aurka jarduteko emaitzarik onenak eman dituzten nazioarteko ebidentzia zientifikoei jarraituz egiten dugu.

Sexu-jazarpena ez da inoiz onartuko gure Elkartearen. Ekintza iraingarriak egiten dituzten pertsonak (hasiera batean horrelako asmorik ez dutenak barne) beren gain hartuko dute erantzukizuna. Protokolo honekin, eta txertatzen diren eguneratzeekin, biktimen eta haien askatasunaren defentsan eta edozein sexu-jazarpenen aurkako prebentzioan konpromisoa hartzen jarraitzen dugu.

2. Helburuak

Hemen adieraziko dugu zer lortu nahi dugun jazarpenaren aurkako Protokoloarekin; horren helburu nagusia jokabide horiek errotik kentzea den arren. Galderari honi erantzun nahi diogu: Zertarako nahi dugu Protokolo hau gure Elkartean? Eta helburu argiak eta eskuragarriak adierazi nahi ditugu, zehatzak. Era berean, gure elkartean sexu-jazarpenen bat egonez gero izango genituzkeen oztopo edo arazoei buruz ere pentsa dezakegu, eta horietako zein bihur dezakegun helburu ikus dezakegu, zailtasun horiek gainditzeko. Sarreran adierazitako zergatien ondoriozko helburuak koherenteak behar dira.

ADIBIDEZ

- Emakumeek eta gizonen elkarren osotasuna eta duintasuna errespetatuko dituzten elkarte bat izateko ardura izango dugu.
- Sexu-jazarpenak identifikatzen eta azkar eta eraginkortasunez erantzuten jakin behar dugu.
- Jende guztiaren esku jarri behar dugu jarduteko eta salatzeko moduari buruzko informazioa.
- Salaketa erraztu behar dugu, konfidentzialtasuna bermatuz, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa errespetatuz eta erasandako pertsonen bidezko tratua ere errespetatuz.
- Kasua azkar konponduko dugu eta biktimari lagun egitea bermatuko dugu.
- Sexu-jazarpenera prebenitzeko neurriak adieraziko ditugu, horrelako egoerak gerta ez daitezen.

3. Definizioak

Atal batean sexu-jazarpenari buruzko definizioak jarriko ditugu, egoeraren bat jazarpenera ote den argiago izateko eta behar bezala ulertzen eta aplikatzen laguntzeko. Gidaren lehen zatian («Orientabide orokorrak») jaso ditugun definizioak aprobeitza ditzakegu, nazioarteko erakundeek eta nazioarteko komunitate zientifikoak adostutako definizioak baitira.

ADIBIDEZ

Sexu-jazarpenak eragina izan dezake emakumeengan zein gizonengan, baita sexu bereko pertsonen artean ere; hala ere, azterlan guztiek adierazten dute jasaten duten gehienak emakumeak direla.

Sexu-jazarpenera:

“Nahi ez den portaera mota oro, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, izaera sexuala duena eta pertsona baten duintasuna urratzea xede edo ondorio duena, bereziki jokabide horrek giro larderiatsua, etsaitasunezkoa,

*apalesgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzen duenean.*²⁸

Adibidez, eta ezer mugatu edo kanpoan utzi gabe, jokabide hauek jazarpenen bat dagoela adieraz dezakete²⁹:

- Nahi gabe emandako musuak, besarkadak edo egindako ukituak
- Iraintzen zaituzten aipamen edo broma sexualki limurtzaileak.
- Topaketa baterako gonbidapen desegokiak.
- Zure bizitza pribatuari buruzko galdera laidogarriak.
- Zure itxura fisikoari buruzko aipamen mingarri laidogarriak.
- Kikiltzen zaituzten begirada desegokiak edo lizunak.
- Norbaitek bidaltzen edo erakusten dizkizun irudi, argazki edo opariak, eduki sexualki esplizitua dutenak, eta iraintzen zaituztenak.
- Jokabide exhibizionista lotsagabeak.
- Norbaitek zure borondatearen kontra ikustera behartzen zaituen material pornografikoa.
- Iraintzen zaituzten mezu elektronikoak edo SMS sexualki esplizituak.
- Iraintzen zaituzten iradokizun desegokiak, sare sozialetan edo Interneteko foroetan.

Sexu-jazarpenaren biktimak izango dira (elkartaren izena) Elkartaren babesaren eta defentsaren lehentasunak. Aldi berean, pertsona horiek jazarpena salatzeko beharrezko baldintzak aurki ditzaten, biktima horiei babesa ematen dieten pertsonak ere babestuko dira, genero-indarkeria isolatzailea delakoa saihestuz:

Genero-indarkeria isolatzailea:

“Genero-indarkeriaren biktimak defendatzen dituenaren aurka egindako erasoak eta errepresaliak dira, biktimak isolatuta egon daitezten. Biktimei laguntzen dietenen zein biktimen aurka zuzenean egindako indarkeria da, biktimak isolatzeko eta zigorgabetasuna bermatzeko”³⁰

4. Printzipioak eta irizpideak

Zenbait oinarri eta irizpide izan behar ditugu kontuan, esku-hartze eraginkorra ziurtatzeko eta bermatzeko eta biktima babesten duena izateko.

ADIBIDEZ

Konfidentzialtasuna:

Alde guztientzako giro segurua eta ez-diskriminatzailea ziurtatzeko eta

28 Europako Kontseilua (2011): *Europako Kontseiluaren 2011ko Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontra* (40. artikulua).

29 FRA - Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentzia (2014): *Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziaren inkesta, emakumeen aurkako indarkeriari buruz*. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-at-a-glance-oct14_es.pdf

30 Aubert, A., & Flecha, R. (2021). Health and Well-Being Consequences for Gender Violence Survivors from Isolating Gender Violence. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(16), 8626

intimitaterako duten eskubidea babesteko, _____ Elkar-teak (elkar-tearen izena) sexu-jazarpen kasuei ematen dien erantzuna kudeatzeaz arduratzen diren pertsonekin soilik partekatuko da informazioa. Erabat debekatuta dago salaketarekin edo ikerketarekin lotutako dokumentuak zabaltzea, salbu eta apelazio, kexa edo prozedura judicial bat jartzeko beharrezkoak badira.

Protokolo honetan deskribatutako prozesuan parte hartzen duten pertsonak, izan erasandakoak, izan jazarpenaren aurkako batzordekideak edo lekukoak, ezin dute gai horri buruz hitz egin elkar-tean, inplikaturako pertsonen pribatutasuna babesteko. Batzordekideek konfidentziasun konpromisoa sinatu behar dute.

Biktimaren alde

Elkar-teak biktimen aldeko jarrera hartuko du beti. Ez da onartzen jokabide sexistak aldatzeko konpromisoa hartzen ez duten pertsonak erakundean jarraitzea.

Biktimekiko elkartasuna

Presioei eta hertsapenei aurre egiteko, Elkar-teak laguntza-ingurune bat izatea eta sustatzea bermatuko du, biktimak bizirik iraun duten pertsona bihur daitezten. Norbaitek sexu-jazarpenagatik salaketa bat aurkezten duenean, egoera edozein izanda ere, denon betebeharra da biktimari sinestea eta biktimarekin elkartasunez aritzea. Eta aldi berean, babestu eta defendatu dituztenak ahaldundu eta lagundu.

5. Nori erasaten dio Protokoloak: ezartzeko eremua

Norentzat da protokoloa? Nori bideratuta dago? Eta zein jardueratarako? Elkar-tearekin elkarrekintzan aritzen diren pertsona guztiei eragiten die Protokoloak (ez soilik bazkideei), eta erakundearen jarduerak egiten diren gune guztiak ere bere baitan hartzen ditu (Elkar-teak lokalen bat badu, ez dio soilik egoitza horri eragiten).

ADIBIDEZ

Protokolo hau _____ Elkar-tean (elkar-tearen izena) parte hartzen duten pertsona guztiei aplikatzen zaie: Zuzendaritza Batzordea, bazkideak, boluntarioak, jardueretan parte hartzen duten pertsonak, kontratatutako langileak eta praktiketako pertsonak (baldin badaude).

Sexu-jazarpena edozein lekutan edo unetan gerta daiteke, elkar-teak berak antolatzen edo sustatzen duen jardueraren bat dela eta (bidaia, kultura-irteerak, elkar-teak antolatutako jaiak, eskolak, tailerrak, hitzaldiak, batzarrak, proiektu-bilerak, etab.) pertsona horiek topo egin ondoren.

Gure elkarteak hitzarmen edo kontratu bat duen kanpoko erakundeei eta lankidetzan aritzen direnei Protokolo honen berri emango zaie.

6. Elkartearen eta elkartekideen erantzukizunak

Gomendagarria da gure elkarteak Protokoloaren bidez sexu-jazarpenaren aurrean bere gain hartzen dituen betebeharrak gehitzea, baita bertan parte hartzen dugun pertsona horien betebeharrak ere. Pertsona guztien duintasuna errespetatuko duen ingurune batean parte hartzeko eskubidea bermatzeko erantzukizuna du gure elkarteak.

ADIBIDEZ

- Gertatutakoa ikertzeko eta zehazteko betebeharra dugu, eta gerta daitezkeen kasuak direla eta, berehala zerbait egokia egiteko betebeharra ere bai.
- Parte-hartzaileen eta jazarpenaren biktima guztien segurtasuna babestea.
- Elkarte osoari sexu-jazarpenarekiko zero tolerantziaren berri emateko erantzukizuna dugu, jazarpen hori egiten duen kidea edozein izanda ere. Hori lortzeko, ikasturte bakoitzean informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egingo ditugu, mundu guztiak argi eta garbi jakin dezan nola jokatu behar dugun eta Protokoloak nola funtzionatzen duen.
- Elkarte osoari aldiro eskainiko diogu prestakuntza sexu-jazarpenaren forma desberdinei buruz eta horiek salatzeke moduari buruz.

_____ Elkarte (elkartearen izena) osatzen dugun guztiok protokolo honen printzipioak errespetatu behar ditugu, baita gure lankideen intimitatea eta duintasuna ere. Horrek esan nahi du ezagutzen diren sexu-jazarpeneko egoeretan esku hartu behar dugula, egoera horiek baztertuz eta salatuz.

7. Nola esku hartzen eta ebazten da

Hemen, jazarpen bat gertatuz gero nola jokatzeko dugun adieraziko dugu, jarduketa-faseak eta ekintza bakoitza nork egingo duen barne.

ADIBIDEZ

a) Kasuaren berri izan

Ustezko sexu-jazarpeneko egoera bati erantzuteko eta konpontzeko, jazarpena jasan duen pertsonak edo ustezko jazarpena ezagutzen duten pertsonak kasuaren berri emateko eta salatzeke modu hauek dituzte:

- Tailerraren edo jardueraren dinamizatzailearengana joan daitezke. Pertsona horrek ahalik eta lasterren eman beharko dio kasuaren berri jazarpenaren aurkako batzordeko arduradunari, jazarpena jasan duenak hala nahi badu.
- Batzordeko arduradunarengana joan daitezke zuzenean.
- Elkartearen telefonora deitu eta batzordeko arduradunarekin hitz egin nahi dutela esan dezakete.
- Mezu elektronikoa bat bidal dezakete helbide honetara: _____ (horretarako bakarrik erabiliko den elkartearen helbide elektronikoa bat sortu behar da, eta Batzordeko kideek soilik kontsultatuko dute)

Kasuaren berri emateko edozein bidetan, uneoro bermatzen da esaten denaren konfidentzialtasuna.

b) Jazarpenaren aurkako Batzordea sortu*

Kexa iritsi den unean eratzten da jazarpenaren aurkako Batzordea elkartearen. Batzordeak informazioa eskatuko die alderdiei, eta konponbide bat proposatzeko betebeharra izango du, betiere biktimen aldeko jarrera hartuz. Batzordea erakundeko pertsonak osatzen dute, eta pertsona horiek biktimen babesarekin erabateko konpromisoa bermatzen dute (ustezko erasotzailea edozein dela ere), bai eta jazarpenaren eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza ere.

* Batzordea ez da izango behin betiko bilduko den batzorde bat, baizik eta balizko sexu-jazarpeneko kasu baten berri jakiten denean aktibatuko da.

Antolatze modu desberdinak egon daitezke:

- Erakundeko pertsonak osatutako batzorde bat izan daiteke, iraupen jakin batekin (adibidez, lau urte)
- Salaketa bakoitzerako berariaz sortutako batzorde bat izan daiteke.

Nolanahi ere, oinarritzko irizpide bat du: balizko jazarpenen ikerketan parte hartzen duten pertsonak biktimak babesteko konpromisoa izatea.

ADIBIDEZ

(goiko taularen jarraipena)

c) Aldeekin elkarrizketak

Batzordea inplikaturako aldeekin bilduko da eta erabakia hartzeko beharrezkoa den informazioa bilduko du. Elkarrizketetan, bi alderdiek nahi duten pertsona izan dezakete lagun. Pertsona horrek konfidentzialtasun-printzipioa errespetatu beharko du uneoro. Bi alderdiak entzun ondoren, kasuarekin zerikusia duten lekukoei dei dakieke, beharrezkoa dela uste izanez gero.

d) Informazioa aztertu eta irtenbidea proposatu

Jazarpenaren aurkako Batzordeak bildutako informazioa aztertuko du eta

burutzeko ekintzen txostena egingo du. Horiek Zuzendaritza Batzordera eramango dira, ahalik eta lasterren hasi ahal izateko.

Ustez jazarritako pertsonak (biktimak) babesa, laguntza eta aholkularitza jasoko ditu une oro prozesu osoan. Bi aldeen arteko kontaktua saihesteko modua ere bilatuko da. Ustezko jazarleak sexu-jazarpenera prebenitzeko eta horren aurka jarduteko elkartean ezarritako neurriei buruzko informazioa jasoko du.

e) Amaiera

Prozesua amaitzen da:

- Sexu-jazarpenera amaitzean
- Erabakiaren berri ematen zaienean inplikaturako alde guztiei.

8. Babesteko, laguntzeko eta konpontzeko neurriak

Jazarpen-zantzuak daudenean, eta arriskuaren arabera, ikerketa-batzordeak behin-behineko neurriak hartzeko proposa dezake, balizko jazarpen-kasu bat salatu duen pertsona babesteko, eta prozesu osoan lagundu dioten pertsonak babesteko ere bai. Neurri horiek ez dute inoiz jazarpena jasan duela uste den pertsonaren kalterako izan behar, eta beti haren beharretatik abiatuko dira.

Sexu-jazarpenetik errekupeartzeko, beharrezkoa da elkarteak eta elkarteko kideek biktimari babesa eta elkartasuna ematea. Honako hauek kontuan izanda esku hartu behar dugu³¹:

- Biktima ez da kulpabilizatu behar.
- Jazarpenera jasan duen pertsonak eraldatzeko duen potentziala baloratu behar du, pertsona horren esanak sartu behar dira erreparazio- eta errekupeazio-helburuetan eta bere hitzak ez dira berrinterpretatu behar.
- Laguntza-sare honek jasan dezakeen genero-indarkeria isolatzailea geldiarazi behar da.

ADIBIDEZ

Erakundearen Biltzarrak Batzordeak gomendaturako neurri egokiak hartuko ditu, jazarpenaren amaiera bermatzeko eta jokabide hori ez errepikatzen. Era berean, jazarpenaren biktimari eragindako kalteak saihesteko edo murrizteko neurriak hartuko dira.

Behin-behinean eta babes-berme gisa, erasandako pertsonaren eta akusatuen arteko kontaktua ekiditen edo saihesten duten neurriak har daitezke, betiere biktimarekin lehentasuna izanda. Adibidez, kalteturako pertsona tailer bateko ikaslea bada, taldez aldatzeko eska daiteke;

³¹ Melgar Alcantud, P., Campdepadrós-Cullell, R., Fuentes-Pumarola, C., & Mut-Montalvá, E. (2020). "I think I will need help": A systematic review of who facilitates the recovery from gender-based violence and how they do so. *Health Expectations*, 24(1), 1-7.

akusatua tailer bateko boluntarioa bada, erantzukizun hori kenduko zaio. Biktimak erabaki ahal izango du aldatu beharrekoa ustezko erasotzailea den ala, inguruabarren ondorioz, nahiago duen berak taldez aldatzea.

Halaber, balizko errepresalietatik babestuko dira salaketa egin duten pertsonak, biktimari prozesu horretan laguntzen diotenak, biktimari elkartasuna adierazi diotenak edo ikerketan lekuko izan direnak.

Oro har, ez da onartzen jokabide jazarleak eta sexistak aldatzeko konpromisoa hartzen ez duten pertsonak Elkartearen jarraitzea.

Batzordeak ondorengo jarraipen bat egingo dio biktimari, jazarpen-egoera horren ondorioz izan diren ondorioak gaindi ditzan, eta ez dadin errepresaliarik egon, ez biktimarekiko, ez laguntza eman dioten pertsonarekiko. Bestela, sor daitezkeen arriskuak erabat murrizteko beste neurri batzuk aplikatzeko aukera baloratuko du elkarteak.

9. Erantzuteko denbora

Egun zehatzak eta erantzun-denbora elkarte bakoitzak erabaki beharko ditu, baina, edonola ere, garrantzitsua da kontuan hartzea ikerketa eta ebazpena ahalik eta denbora laburrenean egitea komeni dela. Salaketa bat jasotzen dugunean, gure erakundearen lehen tasuna izan behar da ikerketa-batzordea abian jartzea eta prozedura hastea.

ADIBIDEZ

Kasuak ahalik eta arinen ebatziko dira. Kexa aurkeztu eta hogeita hamar egun naturaleko epean ebatzi behar da kasua (salbuespenezko arrazoiren bat dagoenean izan ezik, hala nola oporrak, baja medikoak, etab.).

10. Protokoloaren berrazterketa

Egoki iritzitako guztietan aldatu daiteke Protokoloa eta kontuan izan behar dugu hori. Elkartearen batzar orokorraren onspena besterik ez da beharko. Izan ere, dokumentua berrikusi egin behar da edozein arrazoiren ondoriozko aldaketak sartzeko: gure antolatze moduaren ondoriozkoak, hauteman ditugun beharrezko hobekuntzak, sexu-jazarpen eta genero-indarkeria alorreko aurrerapen zientifikoak...

ADIBIDEZ

Protokolo hori edozein unetan berrikusi, eguneratu eta hobetu daiteke, elkartearen prozedura demokratikoetatik abiatuta. Azken onarpena Batzar Nagusian egingo da beti.

11. Prebentzio-ekintzak

Sexu-jazarpeneko egoera batean jardutea bezain garrantzitsua da horrelako egoerak saihestea. Protokoloa abian jartzea eta horri buruz hitz egitea jokabide horiek geldiarazteko eraginkorrak badira ere, elkartearen barruan ekintzak eta jarduerak proposatu behar ditugu, genero-indarkeria mota hori murrizteko eta saihesteko.

Garrantzitsua da Protokoloa eta gure erakundeak sexu-jazarpenaren aurka duen konpromisoa ezagutaraztea, adibidez, kartelen bidez, liburuxkekin, webgunean informazioa jarrita, etab. Bestalde, aldian behin, sexu-jazarpenari, baimenari edo genero-indarkeriaren prebentziozko sozializazioari buruzko hausnarketa sustatzea eta prestakuntza ematea gomendatzen da.

ADIBIDEZ

Beharrezkoa da elkarteko pertsona guztiek sexu-jazarpenarekiko zero tolerantziaren irizpidea ezagutzea, balizko kasu baten aurrean nola jokatu jakitea eta Protokolo hau badela jakitea. Elkarteko kide egitean banatuko diren dibulgazio-idazkietan, karteletan, zabalkunderako beste material batzuetan, hitzaldietan, batzarretan eta Internet bidez emango da horren berri.

Protokolo hau elkartearen webgunean egongo da denen eskura eta paperean nahi duenarentzat paperean ere egingo dira kopiak. Batzordea eta Biltzarra arduratuko dira gure elkartean sexu-jazarpenera prebentzeko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egiteaz.



3. ZATIA PRESTAKUN- TZAKO JARDUERAK

3. ZATIA PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK

Jazarleak gehienetan gertukoak izaten dira, biktima ezagutzen dute, horregatik batzuk salatzeko beldur izaten dira
Ibrahima




Gure erakundearen protokolo bat izateaz gain, gure kide guztiek tresna hori badagoela jakin behar dute, baita zein oinarri dituen ere. Hala, urtero denei (eta, bereziki, kide berriei) jakinarazi eta gogorarazi behar zaie gure elkarteak ez duela jazarpenik onartzen, hau da, beti biktimaren alde egiten duela eta nola jokatu badakiela. Horretarako, komenigarria da aldiro prestakuntzako jarduerak antolatzea, gaiari sakondu ahal izateko.

Jarraian daude edozein elkartetan garatu daitezkeen lantegi edo jarduera batzuk, kideek dinamiza ditzakete eta ez dute inolako gasturik (edo oso txikia dute). Eztatidaren eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboan dago gakoia (gida honetan jaso den bezala). Eraikuntza horretarako ebidentzia zientifikoetatik abiatu behar da eta berdintasuneko elkarriketan oinarritu.

Prestakuntzetan ez da bizipen-dinamikarik behartu behar eta esperientzia pertsonalak partekatzea ere ez, horrelakoak saihestu egin behar dira, askotan ezinezona eragin baitezakete, saihestu nahi duguna erreproduzitu dezakete edo eztabaidaren helburuak desitxuratu ditzakete. Norbaitek bizipenen bat lehen pertsonan partekatu nahi izanez gero, ez zaio galaraziko, baina inoiz ere ez dira horretara behartzeko dinamikak planteatuko. Hori dela eta, jarduera gehienek planteamendua hausnarketa eta eztabaida sustatzea da; egiazko edo simulatutako egoeretatik abiatu daiteke, eta filmen, dokumentalen edo testuen bidez aurkeztu. Hausnarketa are sakonagoa izan daiteke, identifikatuta senti gaitzkeen egoeretatik abiatuta, lehen pertsonen bizipenak izan gabe.

Proposatutako jardueraz gain, alde aurretik egin dezakegun jarduera bat da Gida honetako **“1. Zatia Jarraibide orokorrak”** irakurtzea eta, ondoren, eztabaidatzea, ikerketa zientifikoak sexu-jazarpenari buruz egin dituen ikuspegi eta ekarpen garrantzitsuenak biltzen baitira.

1. LANTEGIA “HITZ EGIN DEZAGUN SEXU-JAZARPENAZ”

Antolaketa 	Denbora 	Gunea 
Talde handia (1. zatia) Taldea txikiak (2. zatia)	Ordubete eta 54 minutu (bi saiotan bana daiteke)	Proiektorea edo pantaila duen aretoa

Helburuak

- Sexu-jazarpen egoerak identifikatzen jakitea.
- Ikusi dugun edo ezagutzen dugun jazarpen egoeretan zerbait egitearen garrantzia ikustea.

Deskripzioa eta denborak:

Lehenengo zatia (gutxi gorabeherako denbora: 45 minutu).

- Jarduera azaldu eta mural, kartoi mehe edo paper handi bat jartzen da pareta batean. Arbela, pantaila edo papelografoa ere erabil daiteke, horrelakorik izanez gero (5 minutu).
- Partaideek postit batean edo zuzenean paper handian edo arbelean idatziko dute sexu-jazarpena zer den haienak eta zein egoera izan daitezkeen horrelakoak beren iritziz. Ozen ere esan daitezke eta dinamizatzaileak apuntatu (15 minutu).
- Denen artean idatzi dugun edukiak irakurri, partekatu eta hausnartuko ditugu (25 minutu).

Bigarren zatia (gutxi gorabeherako denbora: 60 minutu).

- “Voces contra el silencio” dokumentalean jasotako sexu-indarkeriazko egoerak proiektatuko dira. (9 minutu)
- 5 pertsona inguruko talde txikietan eztabaidatuko dira galdera hauek (40 minutu, galdera bakoitzeko 10 minutu inguru):
 1. Sexu-jazarpena normalizatu egin da ala gaiari buruz tabu gehiago dago? Zergatik?
 2. Ikusi duzun gehiegikeria motaren bat besteak baino ohikoagoa da?
 3. Zer egin beharko genuke horrelako egoeraren bat ikusiz gero? Ezer egiten ez badugu, zergatik izango zela uste dugu?
 4. Zein dira oraindik gairatutako ditugun oztopoak?
- Talde txiki bakoitzak bi ideia nagusi adostuko ditu eta gero talde handian partekatuko ditu (10 minutu).

Oharrak

Talde txiki bakoitzean hitz egiteko txandak moderatzeko pertsona bat izango da. Parte hartu nahi dugunean, hitz egiteko txanda eskatuko dugu. Garrantzitsua da txanda errespetatzea eta hitza eskatzea, esaten ari garena ez eteteke. Parte hartu ez duten edo gutxi parte hartu duten pertsonen hitzak lehenasuna izango du.

Baliabideak eta materialak


- Murala, paper handia, kartoi mehea, idazteko pantaila edo arbela.
- Boligrafoak.
- Proiektorea edo pantaila.
- Internetera konexioa duen ordenagailua.
- *Hautazkoa*: postit-ak.
- Dokumental honetako lekukotzak VOCES CONTRA EL SILENCIO, atala "VIOLENCIA SEXUAL / TESTIMONIOS".




VIOLENCIA SEXUAL / TESTIMONIOS



Testimonio 1



Testimonio 2




Testimonio 3



Testimonio 4



Testimonio 5



Testimonio 6



Testimonio 7

2. TERTULIA “SEXU-ADOSTASUNA ETA KOMUNIKAZIO-EKINTZAK”

Antolaketa 	Denbora 	Gunea 
Talde handia	Ordu eta erdi	Areto arrunta

Helburuak

- Adostasunaren dimentsio guztiak ezagutzea.
- Botere-harremanek eta testuinguruak sexu-askatasunerako duten eraginaz ohartzea.

Deskripzioa eta denborak:

Jarduera hau tertulia ideologiko bat da eta 2018ko otsailean Diario Feministan argitaratu zen “Consentimiento sexual y actos comunicativos” artikulua arituko gara. Tertuliak urrats hauek izango ditu:

Tertuliaren aurretik:

Tertuliara testua irakurrita joango gara. Irakurtzean nahi ditugun paragrafoak edo esaldiak azpimarra ditzakegu, gure iritziz interesgarrienak direnak eta aipatu nahi ditugunak (gustatu zaizkigun edo ez zaizkigun paragrafoak, ulertu ez ditugunak, gure egunerokoaz hausnartzeko baliagarriak ditugunak, gure elkarterako egokiak direnak, etab.). Hala eginez gero, guretzat ez ezik gure kideentzat ere irakurtzen ariko gara. Ondoren eztabaida sakona egongo dela jakinda irakurtzea motibatzaileagoa da.

Tertuliaren egunean

Tertulia moderatuko duen pertsona bat egongo da. Tertulia hasi aurretik, beste pertsona batek labur aurkeztuko du artikulua (sarrera besterik ez da izango eta gehienez 5 minutu iraungo du). Pertsona hori ez da gaien aditua, zer eztabaidatu eta zer ez eztabaidatzea erabakitzen duena; aitzitik, eztabaidari hasiera emateko pertsonalki garrantzitsuak iruditu zaizkion artikulua zati batzuk nabarmenduko ditu.

Hortik aurrera, eztabaida hasi eta parte-hartzeak egingo dira, gure harremanak eta elkarteak hobetzeko hausnartzen lagunduko diguten funtsezko puntuak aurkitze aldera. Paragrafoak azpimarratuta izateak testuan zentratutako esku-hartzeak egiten laguntzen du, elkarrizketa errazten du, gure iritzia, galderak, zalantza... azaltzea errazten du, eta eztabaidak testura itzultzen dira, noizbait

testutik irteten hasten bagara. Irakurketari buruzko berdintasunezko elkarrizketan oinarrituko gara, eta beti adieraziko ditugu orrialde-zenbakia (balego) eta gure iruzkin, kritika edo azterketan aipatzen ari garen horren paragrafoa.


Moderatzaileak kontuan izango ditu hitz egin nahi duten pertsonak. Eztabaida antolatzea eta saio bakoitzean gutxien hitz egin duenaren hitz-txandak lehenestea da haren eginkizuna, ahalik eta gehien bermatzeko denek berdinean parte har dezaketela, eta inork ez duela eztabaida monopolizatzen. Guztion arteko elkarrizketarekin ikasten dugu gehien.

Baliabideak eta materialak

- Artikulua “Consentimiento sexual y actos comunicativos”.



3. LANTEGIA “SEXU-ASKATASUNA ETA ADOSTASUNA”

Antolaketa 	Denbora 	Gunea
Talde handia (1. zatia) Taldea txikiak (2. zatia)	Ordubete	Proiektorea edo pantaila duen aretoa

Helburuak

- Adostasuna praktikatzea.
- Mugekiko errespetua adieraztea zuzenean eta online.
- Aukeratzeko askatasuna sustatzea.

Deskripzioa eta denborak:

Lehenengo zatia (gutxi gorabeherako denbora: 20 minutu).

Lantegiaren dinamizatzaileak¹ elkarriketarako bideak irekiko ditu, adostasuna eskatzen duten kasuak partekatuko ditu eta kasu bakoitzari buruzko galderak egin ere bai.

1. urratsa. Jarduera aurkeztu eta taldeko pertsona guztiak eroso sentitzen direla ziurtatuko dugu, giro segurua eta hausnarketarakoa sortuko dugu.

2. urratsa. ‘Adostasuna entzutean zer ulertzen dugu?’ galdetuko dugu. Postitik banatuko ditugu pertsona bakoitzak bere gogoetak idazteko; ondoren, denok partekatzen dugun guneren baten jarriko ditugu postit horiek (ahoz ere egin daiteke eta dinamizatzaileak arbelean, kartoi batean edo antzekoren batean idatz ditzake). Adostasuna dagoela eta ez dagoela uste duten egoeren adibideak jartzeko ere eskatuko dugu. Ekarpinak partekatuko dira.

Pertsonen askatasuna eta erabakiak errespetatzen ez dituzten jarrera eta jokabideetara bideratu behar da eztabaida. Abusua baloratzeko eta pertsonen askatasuna ez errespetatzea justifikatzeko joera ikusten badugu (adibidez, “hainbesterako ez da”, “neska bat horrela janzten bada, zerbaiten bila dabilelako da”... eta antzekoak esaten badira), tailerra dinamizatzen duen pertsonak parte hartuko du diskurtso hori izan ez dadin, eta balioan jarriko ditu sexu-askatasuna errespetatzeko diskurtsoak (“ez” errespetatzea, “bai” askea bultzatzea, hertsapenik gabe...)²

Bigarren zatia (gutxi gorabeherako denbora: 40 minutu).

3. urratsa. Talde handia 3-4 pertsonako talde txikietan banatuko dugu. Taldeetan kasu bakoitza irakurri eta elkarrekin erantzungo ditugu galderak (30’).

¹ Sexu Erasoei buruz Kontzientizatzen Hilarbeterako (2021) *National Sexual Violence Resource Center* delakoaren lantegia egokituko da: <https://www.nsvrc.org/saam>

² Sordé, T. (ed.), Aiello, E., Castro, M. (et al.) (2017): *Guía para la comunidad educativa de prevención y apoyo a las víctimas de violencia escolar*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/d/21889/19/0>

1. KASUA: Jon eta Irati

Jon eta Irati elkarrekin irten dira aste batzuek. Jonek elkar musukatzea proposatu zion Iratiri joan den astean eta biek onartu zuten. Gaur gauean, afaltzen ari direla, Jonek berriro musukatu du Irati eta honek musua itzuli dio.

Eztabaida:

- *Iratiaren adostasunik egon da?*
- *Jon eta Irati elkarrekin hainbat hilabetez edo urtez egonez gero egoeraz beste iritzi bat izango zenuke?*

2. KASUA: Thiago eta Ane

Thiago edatera irten da. Anek mezu bat bidali dio Thiagori eta bere etxera etorri nahi duen galdetu dio. Thiagok baietz esan dio. Iritsi denean, Anek galdetu dio sexu-harremanik izan nahi duen, Thiagok baietz esan dio.

Eztabaida:

- *Adostasuna egon da?*
- *Thiagok alkohola kontsumitu duenez, eragina izan du adostasuna egoteko?*
- *Desberdina izango zen Ane ere edanda egonez gero?*

3. KASUA: Tom eta Abdou

Elkarri testu-mezuak bidaltzen ari zirela, Tomek Abdouri galdetu zion elastikorik gabeko selfie bat bidaliko ote zioten elkarri. Abdouk esan zion ez zela eroso sentitzen horrelako mezuak bidaliz. Tomek ulertzen zuela esan zion eta elkarriketak normal jarraitu zuen. Geroago, gau horretan bertan, Tomek berriro ere elastikorik gabeko selfie bat eskatu zion, esanaz egun gogorra izan zuela eta Abdouren horrelako argazki batek suspertu egingo zukeela. Abdouk ez zuela nahi esan zion, baina bidaliko ziola Tomentzat garrantzitsua bazen. Abdouk argazkia bidali zion.

Eztabaida:

- *Adostasuna egon zen?*
- *Zure ustez, nola sentitzen da Abdou Tomen bigarren eskaria irakurtzean?*
- *Abdouk nahi izan balu, nola esango zion ezetz Tomen bigarren eskariari?*

4. KASUA: Omar eta Daniela

Omar eta Daniela elkarrekin irten dira zenbait hilabetez. Behin baino gehiagotan geratu dira lotan bestearen pisuan. Gau batez, Daniela animorik gabe dagoela ohartu da Omar. Omarrek berarekin etxera joan nahi duen galdetu dio Danielari. Daniela urduri jarri da eta esan dio: "Baietz uste dut". Etxera iritsi direnean, sexurik izan nahi duen galdetu dio Omarrek Danielari. Danielak erantzun dio: "Zuk nahi baduzu".

Eztabaida:

- *Adostasuna egon da?*
- *Zure ustez zer egin behar luke Omarrek Danielari errespetua erakusteko?*

5. KASUA: Adrian eta Sara

Adrian eta Sara elkarrekin bizitzera joan dira urtebetez elkarrekin ibili ondoren. Orain ordenagailua partekatzen dute. Sarak ordenagailua ireki duen batean, Adrianek beste norbaitekin zuen txat pertsonala ikusi du minimizatuta. Sarak txateko pertsona ezagutzen ez duenez, elkarriketa irakurri dut nor ote den eta Adrian nolatan ezagutzen ote duen jakiteko.

Eztabaida:

- *Adostasuna egon da?*
- *Txata irakurtzeko tentazioa izango zenuen?*
- *Adrian eta Sara nola komunikatu daitezke eta nola jar ditzakete ordenagailua partekatzeko mugak etorkizunean?*

6. KASUA: Jian eta Ash

Jian deseatzten dago Ashekin bigarren zita izateko. Ashek ere Jianekiko interesa baduela dirudi, baina Jianen mezuei ez die erantzun egun osoan. Jianek ez daki zer pentsatu eta Ashi bideodeia egiteko eskaria egin dio, zer gertatzen den ikusteko.

Eztabaida:

- *Egoera honetan adostasuna behar da?*
- *Zure ustez justifikatuta dago Jianen jokabidea?*
- *Egoera desberdin ikusiko zenuke Ash bazina?*

4. **urratsa.** Talde handira itzuliko gara kasuetan sortutako galderak eta eztabaidak partekatzeko. Jar-duera amaitzeko, "Tea consent" bideoa ikusiko dugu; bideo labur didaktikoa da eta adostasun sexuala azaltzen du taza bat te erabiliz (10').

Baliabideak eta materialak

- Paper handia, kartoi mehea, pantaila edo arbela idazteko.
- Boligrafoak edo errotulagailuak.
- Proiektorea edo pantaila.
- Internetera konexioa duen ordenagailua.
- *Hautazkoa:* postit-ak.
- Bideoa: Tea consent: (2' 50)

CONSENT

IT'S SIMPLE AS TEA



"Make sure the unconscious person is safe, and this is the important part again, don't make them drink the tea...unconscious people don't want tea"




- Ingelesez:



- Gaztelaniaz:



4. ZINEFORUMA “VOCES CONTRA EL SILENCIO”

Antolaketa 	Denbora 	Gunea 
Talde handia	2 ordu	Proiektorea edo pantaila duen aretoa

Helburuak

- Sexu-jazarpena eta -indarkeria noiz gertatzen ari diren identifikatzen laguntzea.
- Sexu-jazarpen edo -indarkeria egoera bat bera ere ez onartzea eta ez justifikatzea.
- Biktimen alde jartzea eta biktimak babestea.



Deskripzioa eta denborak:

“Voces contra el silencio” dokumentalaren bideo-foruma; RTVEk egin zuen Documentos TV programarako eta Urrezko Globoak irabazi zuen “World Media Festival 2018” delakoan.

1. urratsa. Dokumentala ikusi (denbora: 55 minutu).

Talde handian ikusiko dugu dokumentala; biktimei, biziraun dutenei ahotsa eman zaie eta hainbat lekukotza daude sexu-jazarpenaren eragina testuinguru zenbaitetan kokatuz (kalean, familian, gauetz, eskoletan...), berbiktimizazio prozesu batzuk deskribatzen dira eta sexu-askatasunaren aurkako delituak ikusezin bihurtzen direla esaten da.

2. urratsa. Dokumentalari buruzko mahai-ingurua (denbora: 65 minutu).



Partaideetako bat izango da saioaren moderatzailea, hitza eskatzen duten denei emango die, beste inoren jarduna eten gabe. Moderatzaileak ziurtatu behar du parte hartu nahi duten guztiek hartuko dutela parte, eztabaida anitza izan dadin; hitz egin ez dutenei emango zaie lehenengo hitza, bigarren aldiz hitz egin nahi dutenei baino lehenago, eztabaida monopolizatu ez dezaten pertsona jakin batzuek.

Baliabideak eta materialak

- Dokumentala “Voces contra el silencio”.
- Proiektorea edo pantaila.
- Internetera konexioa duen ordenagailua.



5. ZINEFORUMA “CITATION”


Antolaketa 	Denbora 	Gunea 
Talde handia	3 ordu eta erdi (1h eta 45 minutuko bi saio)	Proiektorea edo pantaila duen aretoa

Helburuak

- Besteen gorputzarekiko errespetua sustatzea.
- Jazarpena identifikatzen eta salatzen laguntzea.
- Sexu-jazarpen eta -indarkeria egoerak arbuizatzeko jarrerak sustatzea.

Deskripzioa eta denborak:

“Citation” filmaren zineforuma. Nigeriako film hau (2020) egiazko gertakarietan oinarrituta dago. Protagonista nagusia neska ikasle bat da eta unibertsitateko irakasle bat salatuko du, ikaslea bortxatzen saiatuko zelako. Unibertsitate-erakundeak ikaslearen salaketari egindako erreakzioa eta prozesu osoa ageri dira filmean.



Citation estreinatu eta gutxira Netflixeko seigarren filmik arrakastatsuen izan zen eta Nigeriako Netflixen ikusiena ere bai. Erresuma Batuko Zinemako Sari Nazionalan “Nazioarteko film onena” saria lortu zuen (2022) eta Afrikako Zinema Akademiaren sarietan (2021) “Soinu-banda onena” saria.

1. urratsa. Filma ikusi (denbora: 151 minutu)

Talde handian ikusiko dugu. Film luzea denez, bi saiotan ere ikus daiteke. Lehenengo saioan hasierako 105 minutu ikus daitezke (ordubete eta 45 min). Eta bigarren saioan, azkeneko 46 minutuak ikusi eta zineforumarekin jarraitu.

2. urratsa. Dokumentalari buruzko mahai-ingurua (denbora: Ordubete)

Aurreko zineforumean azaldu dugun metodologia berdina. Partaideetako batek moderatuko du saio, hitz egiteko txandak dinamizatuko ditu eta aurrez hitz egin ez dutenei lehenetsuna emango die.

Baliabideak eta materialak

- “Citation” filma.
- Proiektorea edo pantaila.
- Internetera konexioa duen ordenagailua.



6. ZINEFORUMA “THE HUNTING GROUND”

Antolaketa 	Denbora 	Gunea 
Talde handia	2 ordu eta 45 minutu	Proiektorea edo pantaila duen aretoa

Helburuak

- Aukeratzeko askatasuna sustatzea, sexu-askatasunarekiko errespetua eta adostasuna.
- Jazartzen ari dena geratzeko estrategia eraginkorren inguruan hausnartzea.
- Biktima babesten dutenak ere babesteko guneak sustatzea.

Deskripzioa eta denborak:

“The Hunting Ground” dokumental ospetsu eta sarituaren zineforuma. Estatu Batuetako unibertsitate-campusetan ikasleek jasandako bortxaketei eta sexu-jazarpenei eta unibertsitateek egoki erantzuteko gaitasunik ezari buruzko lana da, izan ere, kasuak isildu eta ezkutatu egin zituzten, ospea galdu eta kalte ekonomikoak izango zituztelako. Ikasleen mobilizazioak eta elkartasun-sareak ere ageri dira dokumentalean, eta aldaketak eragin zituen unibertsitateetako politikean.



1. urratsa. Dokumentala ikusi (denbora: 103 minutu).

Talde handian ikusiko dugu.

2. urratsa. 1. bertsioa: Dokumentalari buruzko mahai-ingurua (denbora: Ordubate).

Aurreko zineforumak bezala, partaideetako batek moderatuko du saio, hitz egiteko txandak dinamizatuko ditu eta aurrez hitz egin ez dutenei lehentasuna eman go die. Eztabaidatzeko gaiak dokumentaleko alderdirik deigarrienen arabera irekiko dira.

2. bertsioa: Galderen bidezko eztabaida (denbora: Ordubate).

Dokumentalean irteadako gaiak planteatu daitezke, gai gako batzuk ardatz hartu eta elkarrekin eztabaidatzeko. Adibidez³:

³ Egokitzaipena, Sharoni, S. (2015): *The Hunting Ground - A Comprehensive Curriculum Guide for College Educators*. <https://www.thehuntinggroundfilm.com/>

- *Harritu zaituzte unibertsitateetako sexu-indarkeria kasuak zenbat diren jakiteak? Zergatik bai edo zergatik ez? Zuen ustez, unibertsitateak (edo beste erakunde batzuk) zergatik ez dituzte sexu-jazarpena edo -erasoa egiten dutenak zigortzen eta, zenbaitetan, zergatik ezkutatzen dituzte delituak?*
- *Zer behar da hezkuntza-erakunde bat edo edozein erakunde inguru segurua izateko eta kide guztiei babes emateko?*
- *Dokumentala ikusi ondoren, zerbait egin nahiko zenuke egoera horiek ez errepikatzeko edo salatzeko? Zer? Nola?*
- *Jazarpen batean ez dira soilik egoten jazarpena zuzenean jasan duena eta jazarpena egin duena, baizik eta komunitate osoa hartzen du. Badakizu zer egin adiskide bat etorri eta sexu-jazarpena edo -erasoa jasan duela esaten badizu? Zer egingo zenuke lagun bat etorriko balitzaizuke mozkor zegoen norbaitekin sexu-harremanak izan dituela harro esanaz?*
- *Dokumentalaren hasieran honako hau esaten die unibertsitate bateko arduradunak ikasleei: "Unibertsitatean gertatzen dena, unibertsitatean geratzen da". Zer iruditzen zaizu esaldia? Zure ustez, zer eragin du sexu-jazarpenaren tratamenduan?*
- *Dokumentaleko abesti nagusia Lady Gagaren "Til It Happens to You" da eta hau esaten du "Zuri gertatzen zaizun arte/ez duzu jakingo nola sentitzen naizen". Zer iruditzen zaizu? Sexu-jazarpena edo -indarkeria jasan ez duen batek nola babes ditzake jasan dutenak eta arazoari aurre egiteko lan egin?*
- *Ikaslearen nortasun arraziala edo etnikoa, gizarteko klasea, haren familiarik unibertsitatean doan lehenengoa izatea... oztopo izan daitezke salatzeko, batez ere, hezkuntza-erakundeak ez badu horretarako biderik eta ez badu biktima babestu behar. Gure erakundeetan ere antzeko oztopoak egon daitezke. Eztabaidatu arazo hori eta arintzeko zer egin daitekeen.*
- *Dokumentalean unibertsitateko langileak, irakasleak... ageri dira, biziraun zuten pertsonak babesteagatik lana galdutako pertsonak. Genero-indarkeria isolatzailea esaten zaio horri, Gidaren 1. kapituluaren ikusi dugunez. Nola animatu ditzakegu inguruan daudenak, gure komunitateak, hitz egin dezaten eta biziraun dutenak babes ditzaten? Nola sortuko ditugu babesleak babesteko guneak?*
- *Nola tratatzen da kontzientziarioa eta jazarpenaren prebentzioa gure komunitatean?*

3. bertsioa: Eztabaida txikia indarkeriaren aurka eta jazarpena berriro gerta ez dadin (denbora: Ordubete).

Dokumentaleko 1:11:12 minututik aurrera Erica Kinsman ikaslearen kasua agertzen da; Jameis Winston amerikar-futbol jokalaririk bortxatu zuela salatu zuen eta kazetariak eta unibertsitateko kideak kritikatu egin zuten. Eztabaidarako eta hausnarketarako beste dokumental bat ere erabil daiteke: Audrie y Daisy. Bi neska nerabe horiek bortxatu egin zituzten eta bortxaketa salatu zutenean, institutuan nahiz sare sozialetan jazarri egin zituzten, babestu ordez. Honelako galderak egin daitezke:


- *Nola erreazionatzen du jendeak horrelako egoeretan?*
- *Zerk laguntzen du jazarpena geratzen?*

- *Zerk laguntzen du jazarpena areagotzen?*
- *Egoera horietan nola tratatzen dira biktimak babesten dituztenak?*
- *Nola babestu daitezke biktimak babesten dituztenak? Hausnartu babesten dutenak babestearen garrantziaz.*

Baliabideak eta materialak

- Dokumentala “The Hunting Ground”.
- 3. bertsiorako “Audrie y Daisy” dokumentala ere (98 minutu) erabili daiteke. Proiektorea edo pantaila.
- Internetera konexioa duen ordenagailua.





4. ZATIA GLOSARIOA

4. ZATIA GLOSARIOA

Komunikazio-ekintzak

Harreman batean esaten duguna eta hitzez adierazten duguna baino gehiago dago. Horregatik aipatzen dugu kontzeptu zabalagoa, "komunikazio-ekintzak", hau da, ahozkoa ez den hizkuntza, keinuak, begiradak, testuinguruaren eragina eta dauden hierarkiak ere kontuan dituenak.

Bystander

Ingeleseko *bystander* hitza ekitaldi edo gertakari batean egon baina parte hartzen ez duen pertsona batez aritzeko erabiltzen da. "Bystander" batek, berez, ez du egoera aldatzen. Jazarpenaren prebentzioa aipatzen dugunean, jarduera eraldatzailea *bystander* intervention da, hau da, lekuko horrek parte hartzen duenean. Kaltegarria izan daitekeen egoera bat ikusi eta emaitzan eragin positiboa izan dezakeen erantzuna ematea da. Pertsona *bystander* bat aktiboa bada, *upstander* ere erabiltzen da.

Koakzioa / Koertzioa

Norbait zerbait esan edo egiteko, bere borondatea edo portaera behartzeko egiten zaion presioa.

Konfidentzialtasuna

Partekatzen den informazio pertsonala babestuko den bermea, pertsonaren baimenik gabe ez zabaltzeko.

Adostasuna

Adostasuna egongo da norbait beste baten edo batzuen sexu-jarduerarekin ados badago. Adostasuna askatasunez ematen da beti eta sexu egoera batean dagoen edonork sentitu behar du sexu-jarduera edozein unetan geratzeko aukera duela.

Sexu-askatasuna

Pertsona bakoitzak haren sexualitateko alderdi guztiei buruz koakziorik gabe hautatzeko erabaki librea da, egiteko inposiziorik gabe edo beste zerbait egitekorik gabe. Ez da harreman gehiago edo gutxiago izatea, baizik eta pertsona bakoitzak nahi dituenak izatea.

Protokoloa

Egoera desberdinetan zer egin eta nola jokatu jakiteko jarraibidea da.

Biziraulea / Biziraun duena

Jazarpena edo genero-indarkeria jasan baina gainditzeko gai izan den pertsona, edo horren kontra aritzeko zeregin aktiboa izatea. Elkarri laguntzea eta biktimen sare solidarioak izatea funtsezkoak dira biktimatik biziraule izatera igarotzeko. "Biktima" terminoarekin uztartu daiteke, are gehiago, "biktima" beharrezko definizio legala da zigor-sisteman. "Biziraule" ahalduntzeko

erabil daiteke, erreparazio eta errekupeazio prozesua hasi duen pertsona ahalduztzeko, prozesu horretan indartzen ari den heinean.

Upstander


Ingeleseko termino hau erabiltzen da kalte edo bidegabekeria baten xede den norbait defendatzen duenaz aritzeko. *Upstander* bazara, biktimaren defendatzailea zara, aldiz, bystander bazara, ikusle hutsa zara. *Upstander* batek ikusten duenean norbaiti zerbait egiten ari direla, zerbait egiten du horri buruz. Jazarpena gerta ez dadin egiten du zerbait edo jazarria dena babesten du. Gida honetan ikusi dugunez, edonor izan gaitezke *upstander*, zerbait egin eta jazarpen egoera bat aldatu egin dezakegu.

Biktima

Gida honen eta Gidaren protokoloaren testuinguruan, sexu-indarkeria edo -jazarpena jasan duena da. Zigor-sisteman “biktima” terminoa erabiltzen da, delitu bat jasan duen pertsona deskribatzeko; hitza status bat ere bada, eta legean zenbait eskubide ematen ditu. Dena dela, askotan “biziraule” erabiltzen da, ahalduztzea eta gainduztzea esan nahi baitu, “biktima” hitzak berez ahultasuna adierazten ez duen arren, ez du erruduntasuna bere egiten eta errua ere ez.

Genero-indarkeria

Genero-indarkeria da pertsona batek bere generoagatik jasaten duena. Emakumeek nahiz gizonek jasan dezakete genero-indarkeria, baina datuek argi uzten dute biktimarik gehienak emakumeak eta neskatokak direla. Hori dela eta, genero-indarkeria eta emakumearen aurkako indarkeria askotan sinonimotzat erabiltzen dira. Garrantzitsua da “genero” hitza edo “generoan oinarritutako” kontzeptua erabiltzea, izan ere, emakumeen aurkako indarkeria mota askoren oinarrian emakume eta gizonen arteko botere-desberdinkeria dago.



BIBLIOGRAFIA

Aubert, A., & Flecha, R. (2021). Health and Well-Being Consequences for Gender Violence Survivors from Isolating Gender Violence. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18 (16), 8626

Coker, A. L., Cook-Craig, P. G., Williams, C. M., Fisher, B. S., Clear, E. R., Garcia, L. S., & Hegge, L. M. (2011). Evaluation of Green Dot: An Active Bystander Intervention to Reduce Sexual Violence on College Campuses. *Violence Against Women*, 17 (6), 777-796.

Cook, N. K., & Messman-Moore, T. L. (2018). I Said No: The Impact of Voicing Non-Consent on Women's Perceptions of and Responses to Rape. *Violence Against Women*, 24 (5), 507-527.

Cook-Craig, P. G., Millspaugh, P., Recktenwald, E., Kelly, N., Hegge, L., Coker, A., & Pletcher, T. (2014). From Empower to Green Dot: Successful strategies and lessons learned in developing comprehensive sexual violence primary prevention programming. *Violence Against Women*, 20, 1162-1178

Europako Kontseilua (2011): *Europako Kontseilua 2011ko Hitzarmena emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaren kontra* (40. artikulua).

El Diario Feminista (2018). *Consentimiento sexual y actos comunicativos*. Barcelona: Ainhoa Flecha. <https://eldiariofeminista.info/2018/02/11/consentimiento-sexual-y-actos-comunicativos/>

El Diario Feminista (2019). *El caso de "La Manada" exige nuevas aportaciones científicas*. Barcelona: Lidia Puigvert. <https://eldiariofeminista.info/2019/06/21/el-caso-de-la-manada-exige-nuevas-aportaciones-cientificas/>

European Commission: *What is gender-based violence?* https://ec.europa.eu/info/policies/justice-and-fundamental-rights/gender-equality/gender-based-violence/what-gender-based-violence_en

European Institute for Gender Equality: *Gender Statistics Database*. https://eige.europa.eu/gender-statistics/dgs/indicator/ta_wrklab_wrk_cond_wrkcultdiscr__ewcs_harassment/bar

Flecha, R. (2021). Second-Order Sexual Harassment: Violence Against the Silence Breakers Who Support the Victims. *Violence Against Women*, 27 (11), 1980-1999.

Flecha, R., Tomás, G., & Vidu, A. (2020). Contributions from psychology to effective use and achievement of sexual consents. *Frontiers in Psychology*, 11 (92).

FRA - Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia (2014): *Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren inkesta, emakumeen aurkako indarkeriari buruz* https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-at-a-glance-oct14_es.pdf

Latcheva, R. (2017). Sexual Harassment in the European Union: A Pervasive but Still Hidden Form of Gender-Based Violence. *Journal of Interpersonal Violence*, 32 (12), 1821-1852.

Harvard University's Office for Gender Equity (2021). *Helping Harvard Engage in Bystander Intervention. What Can We Do? Steps to Stopping Harassment.*

Pérez Hernández, Y. (2016). *Consentimiento sexual: un análisis con perspectiva de género. Revista mexicana de sociología*, 78(4), 741-767.

Planned Parenthood Federation of America: Consentimiento sexual. <https://www.plannedparenthood.org/learn/relationships/sexual-consent>

Puigvert, L., Vidu, A., Melgar, P., & Salceda, M. (2021). BraveNet Upstander Social Network against Second Order of Sexual Harassment. *Sustainability*, 13 (8), 4135

Melgar, P., Campdepadrós-Cullell, R., Fuentes-Pumarola, C., & Mut-MontalvÀ, E. (2020). "I think I will need help": A systematic review of who facilitates the recovery from gender-based violence and how they do so. *Health Expectations*, 24 (1), 1-7.

Melgar, P., Geis, G., Flecha, R., & Soler, M. (2021). Fear to Retaliation: The Most Frequent Reason for Not Helping Victims of Gender Violence. *International and Multidisciplinary Journal of Social Sciences*, 10 (2), 31-50.

Moschella, E. A., & Banyard, V. L. (2020). Reactions to Actions: Exploring How Types of Bystander Action Are Linked to Positive and Negative Consequences. *The Journal of Primary Prevention*, 41 (6), 585-602.

National Sexual Violence Resource Center. *I Ask for Consent. Sexual Assault Awareness Month.* <https://www.nsvrc.org/saam/2019>

Valls, R., Puigvert, L., Melgar, P., Garcia-Yeste, C. (2016). Breaking the silence at Spanish Universities: Findings from the first study of violence against women on campuses in Spain. *Violence Against Women*, 22 (13), 1519-1539

Vidu, A., Puigvert, L., Flecha, R., & López de Aguilera, G. (2021). The concept and the name of Isolating Gender Violence. *Multidisciplinary Journal of Gender Studies*, 10 (2), 176-200.

Vidu, A., & Tomás, G. (2019). *The Affirmative "Yes". Sexual Offense Based on Consent. Masculinities and Social Change*, 8(1), 91-112

Vidu, A., Valls, R., Puigvert, L., Melgar, P., & Joanpere, M. (2017). Second Order of Sexual Harassment - SOSH. *Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 7 (1), 1-26.

Willis, M., Jozkowski K. (2018). Sexual Precedent's Effect on Sexual Consent Communication. *Archives of Sexual Behavior*, 48:1723-1734